

PAKEA BEZA

Donostiyatik itsas arruntza
lagun maite bat joanikan,
luze egon nais jakin nayian
bazan arren berrikan;
ori askotan besteri bada
galdetzen niyolarikan,
ez nuben onik aspaldichuan
senti ere barrendikan,
triste nebillen buru nekatzen
chit oso auldurikan,
lo egiñ gabe gabaz ta egun
indar danak galdurikan,
alako batez uste gabian
eztakitala nondikan,
adiskidia batek aladir
malkuak azaldurikan.
¡Ill da Otaño gizarajua
gaitzarekin Amerikan
familiyan da Euskal-erriyan
negar asko utzirikan!

CAYETANO S. IRURE.

OROIMEN BAT

Biyotza penaturik
daukatalarikean,
oroimen bat egin gabe
ez daukat onikan;
on Pedro Maria Otaño
ill zan ordutikan,
zer pena sentidan
emen da Amerikan.

Bertzuetan maisuba
 paregabekua;
 ¿nork beteko digu
 ustudanlekua?
 ¡Naikua lan billatzen
 gaur zu añakua!;
 zu, zinaden, izar bat
 Euskal-errikua.

JOSÉ MARINO ARRIETA.

PELLO MARI

Doaitasunez maiz intenzera
 goitiyenetan gañera
 argatik guaz zere izena
 gaur emen onramentzera
 zenbait añañako jakiña ziñan
 ¿nola kontubak atera,
 ispillutzat zuk utzi badezu
 gerentzat *Auntza larrera?*

Zerbait eta Alkar, liburu apaiñ,
 iskribatu diruzunak,
 Anaitasuna, Donostiya ta
 miragarrizko jardunak,
 orko lan danak irakurtzian
 arreta aundiz entzunak,
 arrigarrizka gelditzen dira
 arrotzak eta lagunak.

Oyen tartian *Auntza larrera*
 dago lore bat bezela
 ura iskribatutako lipartan
 etzegon buruz motela.
 ¿Otezekiyan aldiz aurretik
 beartsu ill bear zubela,